

Goi-mailako jostuntzako teknikak
Online ikastaro tutoretzaduna
Erdi-maila

Jantzigintza

2026.01.12—02.01



SA

Erdi-mailako formakuntza hau, jantzigintzako ibilbideko ikastaro-programazioaren parte da, eta proposatutako planaren zati gisa edo jarduera independente gisa egin daiteke. Balenciaga Etxeko jantzigintzako tailerretan erabilitako metodo zehatzetara hurbilketa proposatzen du eta, konkretuki, papar-hegala duen artilezko jaka koadrodun baten elementu jakin batzuk egitea du ardatz.

Prestakuntza-ekimena zazpi modulutan antolatu da, eta oinarri ditu, batetik, ikus-entzunezko edukiak, egin beharreko ariketak azaltzeko eta nola egin ikasteko berariaz sortuak, eta, bestetik, zuzeneko online tutoretza-saioak, modulukoak, irakasleak parte-hartzaileen zalantza eta galderari erantzuteko.

Ikus-entzunezko edukietan, jostuntzako eta litzateko teknika propioak erakutsiko dira, eta, parte-hartzaileek teknika horietan gaitasun praktikoa har dezaten, prozesu horiek errepikatu beharko dituzte, ikasitakoa praktikara eramanez. Ikus-entzunezkoak mugarik gabe ikus daitezke ikastaroari ezarritako daten barruan, eta, parte-hartzaileek proposatutako ariketen garapena nahieran antola dezakete, moduluko aurreikusitako dedikazio-denboraren arabera.

Tutoretza-saioak, berriz, zuzenean egingo dira, Zoom plataformaren bidez, astearte eta ostegunetan, 18:00etan (gaztelaniaz) eta 19:00etan (ingelesez), 50 minutu inguruko iraupenarekin. Tutoretzak grabatu egingo dira eta grabazio horietarako sarbidea emango da tutoretza bakoitza ospatu den egunaren ondorengo egunean.

Artilezko ehun koadrodun baten tratamendu eta jaka papar-hegaldun bat eskuz egiteko eragiketak egitean zentratuko dira. Hona hemen ariketa guztiak, zehaztuta:

JANTZIGINTZA	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen-maila	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	50 ordu	Online
3. Maila aurreratua	35 ordu	Presentziala

I. ASTEA	Urtarrilak 12— 18
1. Modulua	Jakaren aurrealdea
Iraupena Tutoretza	4 ordu Urtarrilak 13
Edukia	<p>Ariketa honetan, joskin-jaka baten aurrealdea sortu beharko da, artilezko ehun koadrodun batekin. Prozesu horretan, arreta berezia eman beharko zaio patroia ehunean kokatzeari eta marrazteari, eta, batik bat, ehunaren motiboaren gaiari. Azken emaitza ahalik eta harmoniatsuena izan dadin, koadroak ezin hobeki lerrokaturik markatu, moztu eta josiko da pieza.</p> <ul style="list-style-type: none">— Ehuna prestatzea eta lisatzea— Aurrealdea markatzea— Aurrealdea moztea— Artehuna moztea— Artehuna aurrealdeari atxikitzea
2. Modulua	Jakaren papar-hegala
Iraupena Tutoretza	4 ordu Urtarrilak 15
Edukia	<p>Bigarren ariketan, papar-hegalari berezko forma kurbatua emateko artehunarekin nola pikatu behar den aztertuko da, baita xingolaren aplikazioa ere, aurreko ertza deforma ez dadin.</p> <ul style="list-style-type: none">— Papar-hegala pikatzea— Xingola artehunari aplikatzea— Artehuna doitzea— Xingola oihalera ustea
3. Modulua	Jakaren alozak eta hegalak
Iraupena Tutoretza	3 ordu Urtarrilak 15
Edukia	<p>Modu asko daude alozak egiteko, erabili nahi den ehunaren arabera. Adibide honetan, ehunaren motiboak elkartuz, aloz irekiak lantzea izango da proposamena.</p> <ul style="list-style-type: none">— Alozak albaintzea— Alozak makinaz jostea eta ertzak eskuz errematatzea— Alozak moztea eta lisatzea— Artehuna moztea, gainezartzea, eta aurrealdeari atxikitzea— Hegalaren atxikitzea eta lisatzea

II. ASTEA	Urtarrilak 19—25
<hr/>	
4. Modulua	Jakaren bista
Iraupena Tutoretza	3 ordu Urtarrilak 20
Edukia	Modulu honetan hegalarren bistaren aplikazioa nola gauzatu erakutsiko da ehunaren motiboaren jarraipena zainduz; motiboak ehunaren aurreko ertzean etenik gabe jarraitasuna izatea bilatuko da. <ul style="list-style-type: none">— Bista kokatzea— Ertza albaintzea eta jostea— Papar-hegalaren etena albaintzea— Papar-hegala lisatzea
<hr/>	
5. Modulua	Jakaren barrena
Iraupena Tutoretza	3 ordu Urtarrilak 22
Edukia	Goi-mailako jostuntzako jantzigintzan, barrenak sendotu egiten dira, zeharkako arthuneko pieza baten bidez, trinkotasuna har dezaten eta formari eutsi diezaioten. Modulu honetan, barrena nola egin erakutsiko da. <ul style="list-style-type: none">— Barrena markatzea— Arthuna zeharka aplikatzea— Barrena albaintzea— Barrenaren puntua egitea arthunaren eta ehunaren artean— Barrena lisatzea
<hr/>	

III. ASTEA	Urtarrilak 26—Otsailak 01
6. Modulua	Botoi-zuloa
Iraupena Tutoretza	4 ordu Urtarrilak 27
Edukia	<p>Balenciaga etxean, ehun bereko zerrendez egiten dira botoi-zuloak. Ehunek marrazkia badute, gaiak bat etorraraziko dira, botoi-zuloa multzoan erabat ezkutatuta edo integratuta gera dadin. Ariketa honetan, emaitza hori lortzeko zer prozedura erabili behar den azalduko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> — Botoi-zuloaren kokalekua markatzea — Botoi-zuloaren luzera eta zabalera markatzea — Zerrendak aplikatzea, aurreko aldetik, gaiak bat etortzeko moduan — Botoi-zuloa moztea — Zerrendak barnealderantz iraultzea eta joskurak lisatzea — Puntu ikusezina egitea, zerrenden zabalera definitzeko — Botoi-zuloaren angeluak jostea — Lisatzea eta soberako ehuna moztea
7. Modulua	Poltsikoa
Iraupena Tutoretza	4 ordu Urtarrilak 29
Edukia	<p>Botoi-zuloekin bezala, marrazkia duten ehunetan, poltsikoaren gaia aurrealdearen gaiarekin bat etor dadin bilatzen da, eta, hain zuzen ere, hori nola egin erakutsiko da modulu honetan. Era berean, poltsikoaren barnealdea artehunaz sendotuko da, forma mantentzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> — Poltsikoaren kokalekua markatzea — Poltsikoaren ireikiunerako zerrenda aukeratzea, marrazkia bat etor dadin ongi zainduz — Poltsikoaren zerrenda markatzea — Artehuna aplikatzea, gurutze puntuz — Zerrendaren ertzak ixtea — Zerrendaren joskurak doitzea — Zerrendaren alboak aurrealdeari jostea — Zerrendaren joskuran puntada ikusezina egitea, barnealdea finkatzeko — Poltsikoa lisatzea

Oharra: Ez da jaka osorik egingo, baizik eta jakaren zati bat erabiliko da esperimendazio-marko gisa. Ikastaro honetan landuko den jaka ondorengo jantzigintzako online ikastaroan osa daiteke. Ikastaro horrek deialdi berezia du. Prestakuntza hori egin eta jaka osatu nahi dutenek berariaz eman behar dute izena deialdi horretan, eskaera kontuan hartzeko ezarritako epeetan.

Javier Martín

Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostintza-teknika espezifikoak ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izeneko. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoa ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko prêt-à-porter jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioi hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostintza teknikak bildu eta helaraziz.



Datak	2026ko urtarrilaren 12tik otsailaren 1era. Aurreikusitako dedikazioa, 25 ordu.
Ordutegia	Parte-hartzaile bakoitzak aukera izango du jarduerari eskaini beharreko denboraren estimazioaren arabera antolatzeko ordutegia, betiere, modulu bakoitzerako finkatutako daten barruan. Tutoretzako saioak, bestalde, astearte eta ostegunetan izango dira, arratsaldez (Espainiako ordua), eta 50 minutu inguruko iraupena izango dute. Ikastaroaren amaieran, otsailaren 3an (asteartea) eta 4an (asteazkena), azken tutoretza saio bat egingo da, gauzatutako lanak irakaslearekin batera aztertzeko eta prozesua bateratzeko. Azken saio horretarako, gehienez 5-6 pertsonako talde murriztuak antolatuko dira, eta esleitutako data eta ordu espezifikoak ikastaroa hasi ondoren jakinaraziko dira.
Hizkuntza	Ikus-entzunezkoak gaztelaniaz daude. Eta tutoretzak bi talde eta hizkuntza desberdinetan egingo dira, gaztelaniaz eta ingelesez.
Parte-hartzaileak	Moda diseinuko, patroigintzako edo/eta joskintzako ikasle edo tituludunak, eta jantzigintzako goi-mailako joskintzako teknikan trebatzeko interesa duen edonor. Bereziki, Museoak antolatutako jantzigintzako goi-mailako joskintzako teknikan hastapen-ikastaroa aurretik burutu duten eta horietan sakontzen jarraitu nahi duten pertsonentzat. 30 lagunek parte hartu ahal izango dute jardueran, gehienez. Parte-hartzaileak aukeratzeko, eskatutako dokumentazioa hartuko da oinarri, eta abenduaren 18tik aurrera jakinaraziko da plazen esleipena.
Baldintzak	Interesdunek joskintzako tekniken ezagutza eduki eta egiaztatu behar dute, eta gai izan behar dute jantzi bat mozteko, albaintzeko eta josteko. Deialdian parte hartzeko ezinbesteko baldintza ez den arren, ibilbide honen hastapen-mailako ikastaroa bete izana baietsiko da.
Izen-ematea	Izena emateko epea zabalik izango da ikastaroa argitaratzen den egunetik, abenduaren 1etik alegia, abenduaren 15era (egun hori barne, 14:00ak arte), eta izena emateko online formularioa bete behar dute interesdunek. Curriculum vitae-a aurkeztu behar da, modaren esparruko prestakuntzaren eta esperientziaren berri emanez, baita interesdunaren motibazioari buruzko gutun bat ere, aditzera emanez jardueran parte hartzeko duen interesa eta haren edukiarekiko duen lotura. Osorik aurkezten ez diren eta epez kanpo aurkezten diren eskariak ez dira kontuan hartuko.

Prezioa 340 €. Prezioak materialak eta hauek penintsulara bidaltzea barne hartzen ditu, ariketak egiteko ezinbestekoak. Beharrezkoen sorta bat prestatuko du Museoak parte-hartzaile bakoitzarentzat, artilezko ehunarekin eta artehunarekin, barne dela patroia ere; material sorta hori adierazitako helbidera igorriko zaie parte-hartzaileei, prestakuntza hasiera data baino lehen.

Penintsulatik kanpo bizi diren parte-hartzaileek, matrikulaz gain, bidalketaren kostua ere beren gain hartu beharko dute, destinoaren arabera. Hona hemen kostu osagarri horiek:

- Balearrak 18€
- Kanariak 30€

Zerrendatik kanpo EBko eremuetan bizi diren parte-hartzaileek, eta, era berean, EBtik kanpo bizi diren pertsonak, Museoak irizpideak eta betekizunak emango dizkie beren herrialdeetan beharrezko generoa eskuratu ahal izateko, eta, kasu horretan, matrikularen kostua 320 € izango da.

Bestalde, parte-hartzaileek josteko oinarrizko lanabesak eduki beharko dituzte (jostorrazak, orratz burudunak, zinta metrikoa, marka-harria, etab.), baita eskuadra, josteko makina, lisaburdina, lisatzeko zapia, lisatzeko kuxina, eta manikia ere, eta ordenagailua edo/eta Tableta, eta Interneteko konexioa, ikus-entzunezkoak ikusteko eta online tutoretzak egiteko.

Cristóbal Balenciaga fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da, bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu.

«Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez bi urteko antzintasuna duten lagunei soilik dagokie.

Plaza mugatuak/Aldez aurretik izena eman behar da

Parte-hartzaileen gutxieneko kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztatzea emango da.

Harremanetarako T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

